

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	EUSKAMPUS FUNDAZIOA
2. Sektorea:	<p>Euskampus Fundazioa 2011ko uztailaren 19an eratu zen, eta haren kide fundatzaileak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Tecnalia Korporazioa eta Donostia International Physics Center (DIPC) izan ziren. Fundazioa erakundeen arteko tresna gisa eratu zen, UPV/EHUren Nazioarteko Bikaintasun Campus (CEI) - Euskampus proiektua gobernatzeko eta kudeatzeko.</p> <p>Diziplina eta eragile anitzeko lankidetzak katalizatzen duen erakunde bat da, bere bazkide estrategikoen baterako lidergoa bultzatu nahi duena.</p>
3. Langile kopurua:	30
4. Webgunea:	https://euskampus.eus/eu
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Euskampus Fundazioak lanean daramatzen hamar urteetan, aldaketa garrantzitsuak gertatu dira esparru estrategiko-politiko globaletan eta tokikoetan.</p> <p>Euskampusen 2030eko Plan Estrategiko berriak «Ekiteko Hamarkadan» kokatzen da, honako hauek betetzeko: Garapen Jasangarrirako Munduko Helburuak (GJH), Europako Itun Berdea (European Green Deal), 2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP2030), Euskadiko Espezializazio Adimenduneko Estrategia (RIS3 Euskadi), Euskal Unibertsitate Sistemaren Plana (EUSP), eta Unibertsitate eta Enpresaren arteko Euskal Estrategia (UEEE).</p> <p>MISIOA: Euskampus Fundazioaren misioa konexio eta ko-kreazio prozesuak abiaraztea, katalizatzea eta lideratzea da... ... lankidetzako programa eta dinamika berritzaileak sor ditzaten... ... unibertsitate hezkuntzan, ikerketan eta ezagutzaren transferentzian... ... erantzunak elkarrekin emateko gizarte eragin handiko erronka zientifikoen, teknologikoen eta kulturalen aurrean... ... Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko, Bordeleko Unibertsitateko, Tecnaliako eta DIPCko kolektiboekin lan eginez, baita Euskadiko, Akitania Berriko eta Europako Unibertsitate Hezkuntza, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako beste erakunde batzuetako kolektiboekin ere, eta beste eragile batzuk sartzeko irekita egonda betiere.</p> <p>IKUSPEGIA: 2030ean, Euskampus Fundazioak ko-lidergo inklusiboko eta diziplinarteko lankidetzako erreferentziako elementu bat izan nahi du Unibertsitate Hezkuntzan, Ikerketan eta</p>

Berrikuntzan, arlo horiek gizarte aurreratuago, jasangarriago eta ekitatiboago batera eboluzionatzeko palankak diren neurrian.

Aurkeztutako misioa eta ikuspegia 5 zutabetan eta denentzako berdina den oinarri batean sostengatzen dira.



9. irudia. Euskampus Fundazioaren lanaren zutabeak

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak: MIREN ITXASO ETXEBARRIA LEKANDA

Helbide elektronikoa: Itxaso.etxebarria@euskampus.eu

Telefonoa: 688673714

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	LANGUAGE POLICY – OCEAN i3 mugaz gaindiko proiekturako bideratuta
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Ocean i3 Language Policy - Mugaz gaindiko dinamika eleaniztunei laguntzeko zeharkako ikerketa-proiektua</p> <p>Eleaniztasunaren eta kulturartekotasunaren dimentsioa zeharka txertatzen da Ocean i3-ren jarduera guztietan. Ikertalde aditu baten laguntza du; talde horrek behaketa eta laguntza ematen ditu, “hizkuntzaren erabilera kontzientziaren” ikuspegia ardatz hartuta, eta hizkuntza baliabideak baino zabalagoak diren komunikazio baliabideak aktibatzen ditu.</p> <p>Oceani3 DIZIPLINARTEKO, MUGAZGAINDIKO eta KULTUR ARTEKO proiektua da, eta Bordeleko Unibertsitatearen eta UPV/EHU Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen zenbait gradu eta graduondoko titulazioetako unibertsitateko kideei zuzentzen zaie. Komunitateak “Mission Oriented Research and Innovation” ikuspegiarekin lan egiten du, ikerketan eta esku hartzean oinarritutako ikaskuntza proiektuak egiteko, misio partekatu bati ekitearren: <i>Euskadi-Akitaniako litorlean plastikoen ondoriozko kutsadura murriztea</i>.</p> <p>Gainera, hizkuntza politika horrek rol garrantzitsu bat du, parte hartzaileak gaitzen baititu haien hizkuntza identitateak berretsi ditzaten, besteenak zapaldu gabe.</p> <p>Eleaniztasunaren eta kulturartekotasunaren dimentsioa zeharka txertatzen da Ocean i3-ren jarduera guztietan. Ikertalde aditu baten laguntza du; talde horrek behaketa eta laguntza ematen ditu, “hizkuntzaren erabilera kontzientziaren” ikuspegia ardatz hartuta, eta hizkuntza baliabideak baino zabalagoak diren komunikazio baliabideak aktibatzen ditu. Laborategi erara lan egiten da, proiektuaren konplexutasunera egokitzen diren urratsak zehazteko (erakundeartekoa, kulturartekoa, eleaniztuna, nazioartekoa), Bordeleko Campusa-Euskampusen beste proiektu batzuetara eramateko.</p> <p>DREAM ikertaldeak, Euskampusekin batera, dokumentu bat sortu du, “Language Policy”, non Ocean i3 komunitaterako hizkuntza politika laburtzen baita; haren helburua da komunitatearen hizkuntza aniztasuna mantentzen laguntzea eta, horretarako, hura ezartzeko motibo nagusiak</p>

argudiatzea. Ocean i3 mugaz gaindiko komunitatean kulturartekotasuna eta eleaniztasuna babesteko eta sustatzeko protokoloa da.

Hizkuntza politika horrek lau hizkuntzen erabilera sustatzen du (**euskara, frantsesa, espainiera eta ingelesa**), eta parte hartzaileei zenbait joko arau eskaintzen dizkie, une bakoitzean zer hizkuntza erabili erabakitzen laguntzeko, bakoitzak nahi duen hizkuntzan hitz egiteko aukera izateko eta komunitate osoa aktibatzeko, zentzua kolektiboki eraiki dezan. Gainera, hizkuntza politika horrek rol garrantzitsu bat du, parte hartzaileak gaitzen baititu haien hizkuntza identitateak berretsi ditzaten, besteenak inbaditu gabe; kontrara, elkar aberasteko.

Beraz, hizkuntza politika horren **helburu nagusiak** honako hauek dira:

- **Hizkuntza aniztasuna** sustatzea eta bultzatzea
- Parte hartzaileen artean **hizkuntza kontzientzia eragitea**, hizkuntza aniztasunaren tolerantzian eta hizkuntza sentzibiltatea duen mugaz gaindiko lankidetzan oinarritzen den gizarte kohesioa sustatzeko.
- **Euskararen erabilera** babestea eta sustatzea, gutxiengoaren hizkuntza den aldetik

Gida praktikoa honek arau, material eta tresna batzuk ematen dizkie parte hartzaileei, komunitatearen saioetan une oro ikuspegi eleaniztuna izaten laguntzeko.

Azkenik, hizkuntza politika erabiltzaileek proposatutako aldaketetara zabalik egongo den tresna bizi gisa ulertzen da. Helburua probatzea eta esperimintatzea da, mugaz gaindiko komunitate eleaniztunaren eta kulturaztunaren eraikuntzan ikasten jarraitzeko.

Ocean i3 proiektuari buruz gehiago ezagutu nahi baduzu, sartu bere [webgune ofizialean](#).

Ezagutu [Language Policy](#) delakoa.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

Deskargatu [Language Policy](#) delakoa.

Erreferentzia gehiago:

- [Blog artikulua: Ocean i3 Language Policy – A transversal research project in support of the cross-borders multilingual dynamics.](#)
- [Blog artikulua: Multilingual communication in a cross-border university project: the case of the Ocean i3 community.](#)
- [Blog artikulua: Multilingual and multicultural university-work environment, focus on New Aquitaine and the Basque Country.](#)

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA